

Datu pertsonalak babesteko konpromisoa

1. Gure konpromisoa datu pertsonalen babesarekin

Web-orrialde honen (aurrerantzean, "web-orrialdea") erabiltzaileen (aurrerantzean "Erabiltzaileak" edo "Datuen Titularrak") datu pertsonalak tratatzeko erakunde arduraduna, dagokien area erreserbatua barne, honako hau da: COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DEL CENTRO COMERCIAL MAX CENTER Y COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DEL CENTRO COMERCIAL MAX OCIO (aurrerantzean, "Enpresa"). Egoitza soziala: Barrio Kareaga s/n, 48903 Barakaldo, Vizcaya. Identifikazio Fiskaleko Zenbakia: H-48.800.932 Y H-95.211.967.

Hori dela eta, Erabiltzaileen datu pertsonalak arduraz, leialtasunez eta gardentasunez erabiliko ditu beti Enpresak.

Enpresak, datu pertsonalak babesteko hartua duen konpromisoaren barruan, zure datu pertsonalak nola eta zer baldintzatan tratatuko dituen ulertzeko beharrezko informazioa emango dizu beti, datu horiek erabili aurretik.

Agiri honen helburua da, hain zuzen, Erabiltzaileei beren datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa ematea.

Gure web-orrialdea erabiltzen duzunean, erregistroaren eta nabigazioaren bidez emango diguzun informazioan oinarritutako datu pertsonalak jaso eta tratatuko ditugu.

Zure datu pertsonalak seguru egongo dira gurekin; izan ere, datu horiek babesteko neurri egokiak hartuko ditugu beti, bai neurri teknikoak bai antolakuntzakoak.

2. Nola eta zertarako jaso eta tratatuko ditugun zure datu pertsonalak

Web-orrialdea 16 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago eta horiek bakarrik erabil dezakete. Haurren datu pertsonalik ez dugu nahita eta jakinaren gainean tratatuko. Haurren datu pertsonalak jaso ditugula jakinez gero, berehala ezabatuko genituzke datuok. Mesedez, jakinaraziezaguzu haurren datu pertsonalak jaso edo tratatuko ditugula, horren berri baduzu.

Gure orrialdean kontu bat sortzen duzunean, zure izen-abizenak eta helbide elektronikoa jasoko ditugu, zu identifikatu eta area erreserbatuan sartzeko xedez. Area erreserbatu horretan deskontu eta sustapen bereziak lortu ahal izango dituzu.

Horrez gain, nahi baduzu, zure telefono-zenbakia, generoa eta egoera zibila ezagutarazi ahal izango dizkiguzu.

Gure orrialdean kontu bat sortzen duzunean, aipatutako datu pertsonalen tratamendua ez onartzeko aukera emango dizugu. Kasu horretan, ez zenuke jasoko sustapenik, zozketarik eta Enpresak edo horren bazkideek sustatutako bestelako jardueren inguruko informaziorik, besteak beste gure *newsleterra*. Eta kontua sortzen duzunean jakinarazpen horien bidalketari uko egiten ez badiozu ere, gure jakinarazpen bat jasotzen duzun bakoitzean egin ahal izango duzu. Horretarako, bi aukera dituzu. Lehen, atal honen bidez: “Cancelar suscripción”, edo “Cancelar la suscripción”. Bigarrena, aurka egiteko eskubidea erabiliz, aurrerago adieraziko den moduan.

Era berean, enpresaren *newsleterrean* harpidetu ahal izango zara, lehenago gure orrialdean konturik ireki gabe. Kasu horretan, zure helbide elektronikoa besterik ez dugu jasoko, agerkari hori zuri bidaltzeko.

Sustapen eta beste eduki batzuei buruzko lehentasunen inguruan ematen dizkiguzun datu pertsonalak erabili ahal izango ditugu zure profila ezarri eta osatzeko. Horretarako, gure orrialdea nola erabiltzen duzun, edukien aurrean nola erreakzionatzen duzun eta Enpresarekin nolako elkarreragina duzun jakiteko informazioa jasoko dugu. Zuretzat interesgarria izan daitekeen informazioa bidaltzeko soilik erabiliko dugu profil hori. Datuen titularrak ez du inoiz hartu beharko maila juridikoan eraginak (batez ere, produktuak, zerbitzuak edo onurak eskuratzea galaraziz) dituen banakako erabaki automatizaturik edo antzeko eragina duenik.

Gure orrialdearen bidez ematen dizkiguzun datu pertsonalen tratamenduak oinarri hau izango du: Enpresak bere produktu eta zerbitzuak edo “Max Center” merkataritza-zentroan merkaturatzen direnak sustatzeko duen interes legitimoa.

Zure datuak tratatu eta haiei eutsiko diegu 2 (bi) urtez gehienez, azken elkarreragina izan duzun egunetik zenbatzen hasita (kontserbazio-aldia), edo, hala badagokio, datuen titularrak aurka egiteko eskubidea edo ezerezteko eskubidea (datuak ezabatzeko eskubidea) erabili arte. Kontserbazio-aldia amaitzen denean, Enpresak datuak ezereztu edo anonimo bihurtuko ditu, betiere datuak beste helburu baterako gorde behar ez badira, esate baterako Enpresak bete behar dituen legezko obligazioak betetzeko edo eskubide bat erabili edo defendatzeko.

3. Nori ezagutarazi ahal dizkiogu zure datu pertsonalak?

Enpresari zerbitzuak ematen dizkioten erakundeei ezagutarazi ahal dizkiogu zure datu pertsonalak, behar izanez gero.

Horrelakoetan, zure datu pertsonalak babesteko segurtasun-neurri egokiak hartzeko beharra ezarriko diegu hartzaileei, kontratu bidez.

Datu pertsonalak ezagutarazi ahal dizkiegun hartzaileen artean honako hauek daude:

- i. AMJRF Consulting, Lda.
- ii. By Com - Serviços de Design e Publicidade, S.A.
- iii. Monday Interactive Marketing, Lda.
- iv. LOG.OSCON, Lda.
- v. WIDGILABS, Lda.
- vi. Key Decision Unipessoal, Lda.
- vii. Sierra Spain Shopping Centers Services, S.A.

Eta, hala badagokio, honako zerbitzu hauen emaileak:

- viii. Datuak biltegiatzea (*data center*).
- ix. Marketineko materialak eta euskarriak eman eta exekutatzea.
- x. Orrialdearen egitura teknologikoaren hornidura, laguntza informatikoa eta sistema eta aplikazioen mantentzea.

Halaber, behar izanez gero, zure datu pertsonalak eskualdatu ahal izango ditugu negozioa edo "Max Center" merkataritza-zentroa saltzen bada, enpresak bat egin, zatitu edo haren kontrola aldatzen bada, edo operazio horietako edozein prestatzeko prozesuan. Edonola ere, datuak eskuratzen dituen erakundeak datuak babesteko konpromiso honen baldintza guztiak bete beharko ditu.

4. Nola erabili zure datu pertsonalak babesteko eskubidea

Datuen titularra, bere eskubideak erabiltzeko, Enpresarekin jar daiteke harremanetan, honako helbide honetan: dataprotection@maxcenter.com

Titularrak honako eskubide hauek erabili ahal izango ditu, Legeak ezarritako baldintzetan:

- **Datuetan sartzeko eskubidea.**
- **Datuak zuzentzeko eskubidea.**
- **Datuen tratamendua mugatzeko eskubidea.**
- **Datuak transferitzeko eskubidea.**
- **Datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea.**
- **Datuak ezerezteko eskubidea (edo ezabatze eskubidea).**

Orobat, erreklamazioa honi aurkezteko eskubidea izango du, Legeak ezarritako baldintzetan: Agencia de Protección de Datos - C/Jorge Juan, 6, 28001 Madrid - Tel. +34 91399 6200 - Fax +34 91455 5699 - e-mail: internacional@agpd.es

5. Datuak babesteko konpromisoa eguneratzea

Konpromiso honetako baldintzak aldatu edo eguneratu ahal izango dira. Hori eginez gero, gure orrialdean jakinaraziko dugu.

